

2024/10/12

2024KO URRIKO AUZOLANA

AUZOLANKIDE KOPURUA: 14 LAGUN



Ergoiena

LANAK

Bi lan-taldetan antolatu gara:

Herrigunekoak: San Martinen, Arrondon eta Ergoienan.


Mendikoak: Aizmusun eta Agautzen (Aian)

Herrigunekoak

San Martingo herrigunean zazpi lagun aritu gara auzolanean, lau emakumezko eta hiru gizonezko, eta lan hauek egin ditugu:

San Martin auzoko edukiontzi gune guztiak (guztira 5 gune) eta inguruak garbitu ditugu. Hainbat zabor (pintura poteak, esekitokia, hondakinak...) lurlean botata zegoen, bildu eta poltsetan sartu dugu. Horrez gain, errekatik hainbat zabor atera ditugu San Martingo zubiaren ondoan. Arrondo auzoan edukiontzien gunea garbitu dugu, eta zubi inguruan xehaketa-lanak egin ditugun, laharrak espailoiraino irteten ziren eta. Ergoiena auzoan parkea garbitu dugu eta eserleku baten inguruan eta espaloian zeuden laharrak xehatu ditugu. Guztira zazpi poltsa handi bete ditugu hondakinez, denera 38 kilo.

Argazkiak



Mendiko lanak

Aian 7 lagun aritu gara auzolanean. Lan hauek egin ditugu:

Aizmusuko artile poltsak

Azken auzolanean artile poltsak jasotzeko lanak amaitu bagenituen ere. Berriki bakarren batek berriro dozena bat zaku bota ditu leku berean. Urkillaga eta Lareo arteko pista honetan malda handiko eremuan botatzen dituzte artilez betetako pentsu zakuak. 150-200 kilo artean atera ditugu. Basozainekin batera aritu gara lanean eta elkarlana indartzeko konpromezua hartu dugu mota honetako legez kanpoko jokaerarik berriro gertatu ez dadin.



Leize garbiketa

Agautz inguruan dagoen leize txiki batera joan gara hura leheneratzeko asmoz. Leize txikia izan arren ehunka kilo zabor topatu ditugu barnean, batez ere txatarra, beira eta ontziak. Lanean hasi eta berehala amiantoa izan dezaken materiala topatu dugu. Momentuan, lana bertan behera uztea erabaki dugu eta leizea garbitzeko lana gisa honetako lanetan aditua den talde baten esku uztekotan geratu gara. Aldundiarekin harremanetan jarriko gara lan hauek ahalik eta lasterren egin daitezzen. Gogoan izan koba eta leizeetatik barrena iristen zaigula ura etxeetara. Garrantzi berezia ematen diogu barrunbeak leheneratzeari.





Eskerrik asko auzolanean aritu zareten herritarrei, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozainei eta Otsotarrak elkarteari. Hurrengoa neguan egingo dugu eta ziur gaude herritarren parte hartzea handiagoa izango dela.